



Zizarea, ziza zizt!

Zizare luze, lirain, berdeak sagarra jan nahi zuen, baina bere amak esan zion:

-Kontuz, zizaretxo: sagarrak jan nahi badituzu, ez sagar handirik jan. Jan nahi badituzu, beti sagar txikiak jan behar dituzu.

Zizaretxoak erantzun zion:

-Bai, amatxo.

Baina gure zizaretxoa sagarrondo batera igo zenean, ez zen amaren esanaz oroitu eta sagar handi, ederra jaten hasi zen. Gustura zegoen zizaretxoa sagar handi, ederra jan eta jan.

Baina, konturatu gabe, sagarrean sartzen hasi eta galdu egin zen. Zizaretxoak ez zekien sarrerako bidea aurkitzen eta negar eta negar hasi zen. Gaua sagarraren barruan pasa beharko zuen.

Hurrengo goizean, zizaretxoa esnatu zenean:

-Zas! Zas! Zas!

-Ai, ama!- Esan zuen zizaretxoak-. Zer gertatzen da hemen?

Baserritar bat ari zen sagar handi, ederrenak otarre batean biltzen. Eta ondoren, sagar handi, ederrenak bildu zituenean, azokara joan zen sagarrak saltzera.

Mikelek sagar handi, eder bat erosi zion baserritarrari.

A ze sustoa hartu zuen Mikelek krask! Krask! Sagarra jaten hasi eta zizaretxoa haren haragiaren erdian ikusi zuenean.

Anjel Lertxundi

*Txikienei ipuina kontatu zuen hitzak erabilia

** Testua oso adierazkorra da, ipuina idatzia dagoen bezala kontatzeko

*** Haurrak ipuina irakurri eta txikiei kontatu

**** Ipuinaren berridazketa bat proposatu, aldaketa bat planteatu ondoren: adibidez, "Inork ez zuen sagarra erosi, zer gertatu zen zizaretxoarekin?"